



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: EKONOMI SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

Espediente zk.: 17-3922

AMOREBIETA-ETXANON ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Krisi ekonomiko luzea eta Amorebieta-Etxanon egun dagoen langabezia tasa ikusita, Udalari dagokio sustapen jarduerak burutzea herriko enpresetan lanpostuak sortzeko eta lan baldintzak hobetzeko. Herriko langabetuei eta aldi baterako lan kontratuak dituztenei eta bereziki egungo krisi ekonomikoaren ondorioz ahulenak diren taldeei zuzenduta dago.

Bestalde, lanpostuak sortzea edota hauen baldintzak hobetzen saiatzeaz gain, Udalari dagokio tokiko ekonomiaren garapena sustatzea. Horregatik, ordenantza honetan enpresa edo negozio bat sortzeko ekimen bat duten langabetuei autoenplegurako babesa ematea aurreikusten da.

1. XEDEA

Oinarri arautzaile hauen xedea lantokia Amorebieta-Etxanon duten eta herriko langabetuak kontratatu edota aldi baterako kontratu bat behin betiko kontratu bihurtzen duten edo lanaldia %50era handitzen duten (lan baldintzak hobetuz) enpresa edo erakundeei diru-laguntzak ematea da. Era berean, enpresa ekimen bat gauzatzen duten langabetuei diru-laguntzak ematea arautzen da.

2. AURREKONTU ZUZKIDURA

Diru-laguntzetarako funts publikoak eta aplikatu beharreko aurrekontu partida, deialdi honetan zehaztuko dira.

Kopuru hau alda daiteke Amorebieta-Etxanoko Udalak hala erabakiko balu.

3. ONURADUNAK

Honako hauek izan daitezke kontratazioa sustatzeko diru-laguntza hauen onuradun:

1. Kontratazioa sustatzeko diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke lantokia Amorebieta-Etxanon duten enpresa edo erakundeak eta baita profesionalak, irabaz asmorik gabeko erakundeak eta enplegu zentroak, hauen xedea baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak laneratzea eta gizarteratzea baldin bada.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2. Langabezian dauden Amorebieta-Etxanoko ekintzaileak eta udalerrian negozio-unitate berri bat ezartzen dutenak.

4. ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona edo erakunde onuradunek ondokoak bete behar dituzte:

- Administrazio edota erakunde publikoen menpe ez egotea, ezta haiekin sozietate loturarik izatea ere.
- Diru-laguntza publikoak eskuratzeko eskubidetik salbuetsita ez egotea.

5. DIRU-LAGUNTZA ESKURATU DEZAKETEN KONTRATAZIO MOTA ETA EKIMENAK ETA DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Ondokoek jaso ahal izango dute laguntza:

- a) Langabetuak kontratatuz egiten diren kontratazioak, gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izango delarik eta lanaldia %50ekoa edo gehiagokoa, betiere deialdiari dagokion urte naturalaren barruan egiten bada.
- b) Aldi baterako kontratuak behin betiko bihurtzea, lanaldia %50ekoa edo gehiagokoa izango delarik.
- c) Lanaldia handitzea, diru-laguntza honen xedea gutxienez betez gero.
- d) Langabezian dauden Amorebieta-Etxanoko ekintzaileak eta udalerrian negozio-unitate berri bat ezartzen dutenak deialdiaren urte naturalaren barruan, betiere jarduerak gutxienez sei hilabete irauten badu.

Kontratzan direnak zein ekintzaileak Amorebieta-Etxanon erroldatuta egon behar dira azken 5 urteetan etenik gabe edota azken 15 urteetan 5 urtez jarraian ez bada ere.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, kontratazioen kasuan, Gizarte Segurantzako gastuak ordaintzeko izango da, ondoko mugekin:

- Amorebieta-Etxanoko enpresek egiten dituzten kontratazioak, langabetuak kontratatuz edota aldi baterako kontratuak behin betiko bihurtuz: diru-laguntza gehienez ere 4.000 eurokoa izango da.
- Lanaldia handituz gero, Gizarte Segurantzaren kuota zenbatean handitu den ikusiko da eta hori izango da diruz lagunduko dena, gehienez ere 4.000 eurora arte.
- Langabetuak kontratatzen badira eta hauek kontratatuak direnean Sarrerak Bermatzeko Legeak araututako laguntzak jasotzen badituzte, gehienez ere 5.000 euroko diru-laguntza jasoko dute.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Gastua kontratua sinatu, aldatu edota handitu eta ondorengo 12 hilabeteetan egin beharko da. Ekitaldiaren azken hiruhilabeteetan egindako kontratuen kasuan, gastua kontratua sinatu, aldatu edota handitu eta ondorengo 9 hilabeteetan egin beharko da.

Bestalde, negozio berriek gehienez ere 4.000 euroko diru-laguntza jasoko dute. Diru hau Gizarte Segurantzako gastuetarako erabil daiteke edota burutuko den jarduerarako material teknikoa eskuratzeko. Gastu horiek jarduera hasi eta ondorengo sei hilabeteetan egin beharko dira.

Kontratazio eta ekintzailtzarako diru-laguntzak kasu bakoitzerako zenbateko zehatzean emango dira eta ezin izango dira pilatu diru-laguntzak langabetu berari dagozkionean.

6. SALBUETSITAKO KONTRATUAK

Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso ondoko kontratazio edo aldaketek:

1. %50eko lanaldira heltzen ez direnek.
2. Deialdi honetan edo aurrekoetan, azken bost urteetan, enpresa berean kontratatua izateagatik laguntza jaso dutenenak.
3. Ezkontide, aurreko, ondorengo eta gainontzeko senideekin egindakoak, odolkidetasun, ezkontza ahaidetasun edota adopzio lotura bidez, bigarren mailara arte; sozietate forma juridikoa duten enpresen administrazio organoetako kideenak edota %25eko edo gehiagoko parte-hartzea dutenak enpresaren kapitalean.

7. BESTE LAGUNTZA BATZUREKIN EMATEA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira bestelako erakunde eta entitate pribatuek ematen dituztenekin, betiere jasotako diru-laguntza bateragarrien zenbateko osoa justifikatutako gastuaren zenbatekoa baino handiagoa ez bada.

8. ESKARIAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

A) Kontratatzekeo laguntzak jasotzeko edota lan baldintzak hobetzeko diru-laguntza eskariak

Kontratatzekeo edota lan baldintzak hobetzeko diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten enpresa edota entitateek ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

1. Hasierako eskabidearekin batera eta onartua izan dadin:
 - a) Oinarri hauen I. Eranskina, beteta.
 - b) Enpresaren edo erakunde onuradunaren IFK
 - c) Enpresa eratu izanaren erregistroko datuak eta eratze-eskiriturak, berezko izaera juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko izaera juridikorik ez duten



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua gehitu beharko da, Foru Ogasunak zigilatua.
- d) Tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean izatea egiaztatzea.
 - e) Oinarri hauen 4. puntuan eskatutakoak betetzen direla dioen zinpeko aitorpena, II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera.
 - f) Hirugarren interesdunaren bankuko datuei alta emateko fitxa, dagokion banketxeak zigilatua (III. Eranskina).
 - g) Egindako edo egingo den kontratazioaren datuak, Gizarte Segurantzaren kostua adieraziz. IV. Eranskina.
2. Eskaria aurkezterako unean, kontratazioa edota kontratu aldaketa eginda egonez gero, ondokoak erantsi beharko dira:
- a) Kontratuaren iraupena eta lanaldia jasotzen dituen lan-kontratua edota aldaketa.
 - b) Kontratatu den pertsona Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
 - c) Kontratatu denaren NAN edota AIZ.
 - d) Langabetuaren egoerari buruzko Lanbideren egiaztagiria, eguneratua.
 - e) Kontratuaren subjektuak Diru Sarrerak Bermatzeko Legeak araututako diru-laguntzaren bat jasotzen badu, kontratatzen duen erakundeak egoera hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.
 - f) Kontratatuaren pertsonaren bizitza laborala.
3. Eskaria aurkezteko unean, kontratazioa edota aldaketa egin gabe egonez gero, 2. puntuan adierazitako agiriak eta behin betiko IV. Eranskina kontratazioa burutu eta hilabete igaro baino lehen aurkeztu beharko dira.
4. Kontratazioa burutu izanaren egiaztagiria eta laguntza ordaintzeko eskariarekin batera, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:
- a) V. Eranskina, sinatuta eta zigilatuta.
 - b) Kontratatu denaren lan-bizitzaren agiria, diru-laguntza eskatzen den enperako enpresan lanean aritu dela egiaztatzen duena.
 - c) Erakunde onuradunak tributu betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen egiaztagiria (eguneratua).
 - d) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eguneratutako egiaztagiria, betebeharrak egunean dituela ziurtatzen dituena.
 - e) Enpresa edo erakundearen legezko ordezkariaren zinpeko aitorpena, kontratatutako pertsonarengatik Gizarte Segurantzari kuotetan ordaindutako zenbatekoa adieraziz. Lansari kontablearen eta diruz lagundutako epearen kostuen laburpen bat ere aurkeztu beharko da.
 - f) Kontratatuaren pertsonaren bizitza laborala.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

B) Enpresa edo negozio ekimen bat duten langabetuen autoenplegurako diru-laguntza eskariak

Diru-laguntza hauek eskuratu nahi dituztenek ondokoak aurkeztu beharko dituzte:

1. Hasierako eskabidearekin batera eta onartua izan dadin:
 - a) Oinarri hauen I. Eranskina, beteta.
 - b) Enpresaren IFK
 - c) Enpresa eratu izanaren erregistroko datuak eta eratze-eskriurak, berezko izaera juridikoa duten erakundeen kasuan. Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua gehitu beharko da, Foru Ogasunak zigilatua.
 - d) Tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean izatea egiaztatzea.
 - e) Oinarri hauen 4. puntuaren eskatutakoak betetzen direla dioen zinpeko aitorpena, II. Eranskinean jasotako ereduaren arabera.
 - f) Hirugarren interesdunaren bankuko datuei alta emateko fitxa, dagokion banketxeak zigilatua (III. Eranskina).
 - g) Langabetuaren egungo egoeraren gaineko Lanbideren ziurtagiria.
 - h) Aurreikusitako gastuen aurrekontua.
 - i) Kontratutako pertsonaren bizitza laborala.
2. Zuriketarako, ondoko agiriak aurkeztu beharko ditu:
 - a) Erakunde onuradunak tributu betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duen egiaztatzea (eguneratua).
 - b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eguneratutako egiaztatzea, betebeharrak egunean dituela ziurtatzen dituen.
 - c) Sortutako gastuen faktura/egiaztigiri originalak (Gizarte Segurantzaren, material tekniko)
 - d) Kontratutako pertsonaren bizitza laborala.

Oso-osorik bete gabe dauden eskariak edota beharrezko agiriak erantsen ez dituztenak, ez dira onartuko. Eskaria onartu ondoren, akatsen bat dagoela edota zerbait falta dela ikusten bada, pertsona edo erakundeari eskatuko zaio akatsa zuzendu edota beharrezko agiriak aurkez ditzala hamar eguneko epean. Horrela egingo ez balu, eskariari uko egiten diola ulertuko da eta Amorebieta-Etxanoko Udalak eskari honi buruzko berriazko ebazpena eman beharko luke eta baita jakinarazi ere.

9. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskariak dagokion deialdian adierazitako toki eta epeetan aurkeztu beharko dira.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

10. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, KUDEATZEKO ETA ORDAINTZEKO PROZEDURA

Diru-laguntzak erregistroan sarrera eman zaien hurrenkeran emango dira, betiere aurkeztutako eskariek 8. puntuan eskatutako agiri guztiak baldin badituzte eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte. Diru-laguntza eman arren, ondoko baldintzak bete beharko dira: zuritu egin beharko da eta 2. puntuan adierazitako aurrekontu mugak kontuan izango dira.

Diru-laguntza ematea edota ukatzea, Amorebieta-Etxanoko Udalak berariazko ebazpen bidez egingo du. Eskaria egin duen pertsona edo erakundeari eskaria egin duenetik zortzi hilabete igaro baino lehen jakinaraziko zaio ebazpen hau idatziz.

Ez balitz ebazpenarekin ados egongo, Amorebieta-Etxanoko Udalak hartuko du erabakia eta, hala dagokionean, bi alderdiak Bizkaiko jurisdikzio eskudunaren pean geldituko lirarteke.

Diru-laguntza ordainketa bakar baten bidez eskuratuko da, 8. puntuan adierazitako agiriak aurkeztu eta gehienez ere bi hilabeteko epean. Agiriak Amorebieta-Etxanoko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira diruz lagundutako kontratazioaren epea amaitzen denetik gehienez ere hilabeteko epean edota Gizarte Segurantzako kuotetan ezarritako gehieneko diru-laguntza eskuratu bada.

Negozio-unitate berriei dagokienez, diru-laguntzak zuritzeke agiriak aurkezteko epea eskariak aurkezteko epea amaitu zenetik zortzi hilabeteraino luzatu ahal izango da.

Amorebieta-Etxanoko Udalak izapidetze-fasean duen ezein itzultze edo zigor prozedura amaitu ondoren eman eta ordainduko da diru-laguntza.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradun diren pertsona eta erakundeek Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, baita Udaleko diru-laguntzen ordenantza orokorrean ezarritakoak ere eta, horrez gain, baita ondokoak ere:

1. Diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein inguruabar, objektibo zein subjektibo, aldatu bada, jakinarazi egin beharko da.
2. Amorebieta-Etxanoko Udalak diru-laguntzak direla-eta eskatzen duen informazio oro ematea.
3. Amorebieta-Etxanoko Udalari helburu berdinerako jasotako bestelako diru-laguntzen berri eman beharko zaio, beste diru-laguntza hau edozein administrazio zein erakunde publiko zein pribatuk emanda ere.
4. Udal honekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

12. OINARRIAK EZ BETETZEA



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Onuradun den pertsona edo erakundeak oinarri hauetan ezarritako ezein baldintza beteko ez balu, diru-laguntza eskuratzeko eskubidea galduko luke, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko luke eta baita berandutza-interesak ere diru-laguntza ordaindu zenetik.

13. AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera indarrean sartuko dira.

Pertsona edota erakundeek eskaera-orria aurkezten badute, oinarrietan jasotakoa oso-oso onartzen dutela ulertzen da.